



**GURASOEN HASIERAKO EBALUAKETAREN
EMAITZAK**

2015-2016 ikasturtea

(Trintxerpe eta Eibar)

Galtzagorri Elkarte
2016ko abendua



SARRERA

- Txosten honetan Bularretik Mintzora egitasmoaren gurasoen hasierako galdekizunen emaitzak aurkezten dira.
- Ebaluazio hau 2015-2016. ikasturteko lehen hiruhilekoan egin da Trintxerpe eta Eibarreko bi ikastetxe hauetan:
 - **Trintxerpe:** Karmengo Ama Herri Ikastetxea (28 galdekizun)
 - **Eibar:** San Andres Herri Ikastetxea (39 galdekizun)
- Banatu ziren galdekizunetatik, guztira, **67 gurasok erantzun** dute.

HASIERAKO GALDEKIZUNAREN HELBURUA

- Gurasoek haur literaturarekiko dituzten jarrera, ohiturak eta ezaguera maila azaleraztea da.
- Hasierako galdekizunarekin aipaturiko gaietan “oinarrizko abiapuntua” identifikatzen da, gerora, egitasmoaren eraginkortasuna aztertu ahal izateko.



METODOLOGIA

- Hasierako egoera ebaluatzeko, gurasoei galdekizun bat pasa zaie. **Aldagai** hauek kontuan hartu dira:
 - 1. Bularretik Mintzora egitasmoarekiko itzaropena**
 - 2. Irakurketarekiko jarrerak**
 - 2.1. Irakurketaren goiztiartasuna
 - 2.2. Irakurtzearen zergatiak
 - 3. Kontakizunaren jarduera haurrekin**
 - 3.1. Haur kanta kantatu
 - 3.2. Kontatzearen maiztasuna
 - 3.3. Kontakizunaren unea
 - 3.4. Nork kontatzen du
 - 4. Narraziorako baldintzak**
 - 4.1. Ipuina kontatzeko estrategiak
 - 4.2. Inguruko baldintzen kontrola
 - 4.3. Haurren arreta (denbora)
 - 5. Haur literaturako baliabideen ezagutza maila**
 - 5.1. Baliabideen erosketa
 - 5.2. HLko baliabideen adin egokiaren informazioa
 - 5.3. HLko informazio bideen erabilera
 - 5.4. HLko informazio bide mota
 - 6. Liburutegiaren erabilpena**
 - 6.1. Liburutegira joatea (maiztasuna)
 - 6.2. Mailegatutako baliabide mota
- Galdekizunak mota ezberdinetako **16 galdera** ditu.
- Galdekizunak aipatutako **2 ikastetxeetan** banatu dira, instrukzio orriarekin batera. Epe bat eman ondoren jaso dira, datuak bildu eta estatistikoki tratatuak izateko. Txosten honetan azaltzen dira prozesu horren emaitzak.




TXOSTENA
GURASOEN HASIERAKO EBALUAKETAREN
EMAITZAK

2015-2016 ikasturtea

(Trintxerpe eta Eibar)

1. BULARRETIK MINTZORA EGITASMOAREKIKO ITXAROPENA



Aldagai honekin Bularretik Mintzora egitasmoarekiko motibazioak zeintzuk diren jasotzen da. Maiztasun handiagoarekin azaltzen diren itxaropenak hiru dira: gurasoek espero dute Bularretik Mintzora egitasmoa “haurra, txikitatik, estimulatzekeo estrategiak eskuratzeko” baliagarria izango dela (%58a), “Haur Literaturako baliabideak ezagutzeko” eraginkorra izango dela (%63a) eta “Komunikazio estrategiak indartzeko” baliagarria izango dela (%61a).


Bigarren mailan, beste bi motibazio azaltzen dira: “haurren ahazko garapenari buruzko aholkuak eskuratzeko” (% 33a) eta “ipuin bat kontaktzen jakitea” (%18a).

Datu horiek adierazten dute gurasoek Bularretik Mintzora egitasmoarekiko azaltzen dituzten grinak, itxaropenak edo “eskaerak” haurren estimulazioaren eta Haur Literaturako baliabideen ildotik doazela bereziki. Dirudienez, zentzu eraginkor edo erabilgarri bat eman nahi diote irakurzaletasunari.

“Ahozko garapenari buruzko aholkuak eskuratzeko” azken aurreko aukeren artean baloratua izatea deigarria da. Bizi garen irudiaren eta teknologi berrien aroaren adierazgarri izan daiteke.

2. IRAKURKETAREKIKO JARRERAK


2.1. Irakurketaren goiztiartasuna



Guraso guztien iritziz garrantzizkoa da jaio berritik hasia irakurketa lantzen, irakurzaletasuna suspertzen, ipuinak kontatzen, ...

Datu honek garrantzia dauka, egitasmoari sinesgarritasuna ematen diolako (formazio ekintzak jasotzen dituzten gurasoei koherentzia ematen baitie).

2.2. Irakurtearen zergatiak




Ipuinak kontatzearen, poesia errezitatzearen, sehaska kantak kantatzearen, eta oro har, haurrari “irakurtzen ematearen” zergatiez galdetzerakoan, gurasoek zergati bat baino gehiago aipatu dute. Lehen arrazoi bezala hau azaltzen da: “Ongi pasatzeko” (%**64a**). Ondoren beste bi arrazoi eman dituzte: “Besterik” izenburupean sartzen diren zergatiak, alegia, “komunikazioa indartzeko”, “erlaxatzeko”, “loaratzeko”, ... (%**51a**) eta, ehuneko esanguratsuekin, “gauzak irakasteko” azaltzen da (%**55a**). Laugarren zergati gisa, “jolasteko” aipatu dute (% **24a**). Indar gutxirekin azaltzen diren beste bi arrazoiak honakoak dira: “haurra distraineko” (% **6a**) eta “irakurtzen ikasteko” (% **10a**).

Emaitza horien arabera esan daiteke gurasoek bere haurrarekin irakurtzen ari direnean, plazera eta estimulazioarekin lotzen dutela irakurketa bera, eta kokatzen dituztela bigarren maila batean irakurketaren helburu didaktikoak edo hezitzaileak (irakurtzen irakasteko), funtzio hori eskolarako utziz.

Gurasoek irakurketa ez dute erabiltzen, orokorrean, haurra distraineko (%**6ak bakarrik**). Datu honek adierazten du gurasoek nolabaiteko garrantzia eta identitate propioa ematen diotela irakurketari. Hau da, irakurketa ez dute hartzen beste helburu batzuk lortzeko “tresna” edo “baliabide” soil gisa.


3. KONTAKIZUNAREN JARDUERA HAURRAREKIN

3.1. Haur kantak kantatu




Guraso guztiek (**%100ak**) kantatzen dizkiote haurrari sehaska kantak. Eraitza honek haurraren adinarekin zerikusi zuzena du. Kontuan izan behar dugu galdeketa erantzun duten guraso guztiek 3 urteko haurrak dituztela eta, normala denez, adin txiki hauetan, gurasoek oraindik sehaska kantak kantatzeko ohiturarekin jarraitzen dute, hau da, sehaska kantak, haur jaio berri edo txikiekin lotzen dituzte.

3.2. Kontatzearen maiztasuna



Haurrei ipuinak kontatzeko maiztasunaz galdetzerakoan, **%39ak** batzuetan kontatzen dizkietela dio; sarritan, **%24ak** eta egunero, **%15ak** kontatzen dizkiete. **%10ak** noiz edo noiz.


3.3. Kontakizunaren unea



Ipuina noiz kontaktzen duten aztertzerakoan, guraso askok erantzun bat baino gehiago aukeratu dituzte. Beraz, aukeran eman zaien egoera edo momentu batean baino gehiagotan kontaktzen dutela diote. Une edo momentu aukeratuena “lo hartu aurretik da” (**%60a**). Datu honek egiaztatzen du, orokorrean, etxearen esparruan loturik azaltzen diren ekimenak direla: ipuinaren kontaketa eta haurra lokartzea. Une hau aukeratzearen zergatiei dagokienez, hipotesi batzuk egin daitezke: haurrak berak eskatzen duelako eta lotzen duelako kontakizuna une lasai eta berezi horrekin; edota egunaren momentu horretan, gurasoek denbora eta aukera gehiago dutelako haurrarekin egoteko.

Beste uneak maiztasun gutxiagoarekin azaltzen dira: “Edozein momentutan” gurasoen **%39ak** kontaktzen du; kontakizuna “jolasarekin” lotzen dutenak **%18a** dira. Gurasoen gutxieneko batek eguneroko zainketa edo ohiturekin (“Jatean, janztean, bainatzean, ...”) lotzen du kontakizuna, **% 9ak**, hain zuzen ere.

3.4. Nork kontaktzen du



Ipuinak nork kontaktzen dituen galdetzerakoan, guraso askok pertsona bat baino gehiago aukeratu dute. Baina ekintza hau, gehienetan, amaren eskuetan dagoela erantzun dute; hurrei ipuinak kontaktzen zaizkien aldi guztietatik, **% 60etan**, amek kontaktzen dizkiete; aitek, **% 51etan**.


Beste pertsonen artean “aiton-amonak” azaltzen dira, baina ehuneko askoz baxuagoekin. Amonak-amamak dira (**% 13a**) aiton-aititekin konparatuz (**% 7a**) ipuinak aldi gehiagotan kontaktzen dituztenak.

Aipatzekoa da “beste pertsonak” ere parte hartzen dutela ipuina haurrari kontatzerakoan, nahiz eta kopuru txikiagoan azaldu, (**%6a** hain zuzen ere). “Besteak” multzoaren barruan osaba-izebak, zaintzaileak, ... sartzen dira.

Emitza horien aurrean esan daiteke kontakizunaren jarduera emakumeen esku dagoela bereziki, nahiz eta gizonezko batzuk ere parte hartzen duten.

4. NARRAZIORAKO BALDINTZAK

4.1. Ipuina kontatzeko estrategiak




Orokorrean, gurasoek ipuina kontatzerakoan estrategia bat baino gehiago erabiltzen badute ere, erabiliena “irudiak erakutsi eta komentatzea”rena da (**% 76ak**).

Ondoren, beste estrategia bat erabiltzen dute: “Testua irakurri” (**%48ak**). Bestetik, maiztasun esanguratsuekin erabiltzen dute (**%25ak**) “besterik” izenpean biltzen diren estrategiak: asmatu, galderak egin, era laburrean kontatu,... “Keinuak erabiltzen dituztela kontatzerakoan” **%27ak** erantzun du.

Askoz ere gutxiago erabiltzen duten estrategia “ahoz kontatzea, libururik gabe” da (**% 13ak**). Hau da, ipuina kontatzerakoan, ahozkotasuna, inongo euskarririk gabe, guraso gutxik erabiltzen dute.

Azkeneko emaitza honek adierazten du azertu diren gurasoek ipuina kontatzea irudiarekin lotzen dutela bereziki, eta ahozkotasuna bigarren maila bateko estrategia bezala erabiltzen dutela (oso gutxik, hala ere), orokorrean, ez daudelako ohituta ahozkotasuna lantzen.


4.2. Inguruko baldintzen kontrola



Narrazioa burutzerakoan inguruko baldintzak ea zaintzen edo kontrolatzen dituzten galdetzerakoan, orokorrean, guraso gehienek baietz diote. Gehien kontrolatzen duten baldintza “arreta erabatekoa izatea” da (%84ak). Beste bi baldintzak maila berean kokatzen dira: “Isiltasuna egotea” %63ak zaintzen du eta beste horrenbestek “gurasoa bera erlaxaturik eta motibaturik egotea”.

Datu horiek azaleratzen dute, orokorrean, gurasoak gehiago arduratzen direla haurren arreta kontrolatzeaz, inguruko isiltasunaz eta beraien egoera psikologiko propioaz eta motibaturik egoteaz baino.

4.3. Haurren arreta (denbora)




Jarduera literario batean haurrak arretaz zenbat denbora egoten diren galdetzerakoan, guraso gehienek “5-10 minutu” erantzuten dute (**% 36ak**).

Ondoren proposatzen diren hiru denbora tarteen artean, ez dago ezberdintasun handirik: “3-5 minutu” (**%22ak**), “10-15 minutu” (**%24ak**) eta “15 minutu baino gehiago” (**%12ak**). Azkenik, maiztasun txikiagoarekin azaltzen den denbora tartea, “3 minutu baino gutxiago” (**%6ak**), da.

Emaitza horiek ez dira harritzekoak, haurren adina kontuan izaten badugu (3 urte). Normala denez, zenbat eta adin handiagoa izan, orduan eta arreta mantentzeko ahalmen gehiago izango du haurrak. Horregatik, aurreko ehunekoak haurren adinak berak baldintzatzen ditu. Dena dela, guraso batzuen iritziz (**%12a**), nahiz eta 3 urteko haurrak izan, badira 15 minutu baino gehiago arretari eusten diotenak ere.


5. HAUR LITERATURARI BURUZKO EZAGUTZA

5.1. Baliabideen erosketa



Guraso gehienek diote (**%55ak**) “batzuetan” erosten dituztela Haur Literaturako baliabideak. “Sarri” erosten dituztela diotenak, aldiz, **%21a** dira. “Gutxitan” edo “inoiz ez” ez dituztenak erosten **%22a osatzen dute**.

5.2. HLko baliabideen adin egokiaren informazioa




Haur Literaturako baliabideak zein adinetarako diren egokiak galdetzerakoan, gurasoen erdiak baino gehiagok informazio “gutxi” (**%52ak**) duela edo “ez” duela informaziorik (**%13ak**) adierazten du.

Datu hau esanguratsua da, guraso gehienek ez baitakite bere seme-alabarekin erabiltzen duten Haur Literaturako baliabide hori egokia den ala ez.

Aldiz, gurasoen beste **%34ak** informazio “nahikoa” duela dio eta **%7ak** bakarrik adierazten du informazio “asko” duela.


5.3. HLko informazio bideen erabilera



Haur Literaturari buruzko baliabideen informazioa eskuratzeko, informazio bideen erabileraren maiztasunaz galdetzerakoan, guraso gehienek (**%55ak**) “gutxi” erabiltzen dituztela diote. “Nahikoa” erabiltzen dituztenak (**%22a**) dira eta “asko” erabiltzen dituztela diotenak **%1a** dira bakarrik. “Bat ere ez” dituztenak erabiltzen **%18a** dira, ehuneko esanguratsua da beraz.

Emitza horiek adierazten dute, orokorrean, gurasoen artean Haur Literaturari buruzko informazio bideak erabiltzeko ohitura gutxi dagoela, ezjakintasunagatik edo/eta ohitura faltagatik.

5.4. HLko informazio bide mota




Haur Literaturako informazio bideak erabiltzen dituzten gurasoei zeintzuk erabiltzen dituzten galdetzerakoan, guraso batzuek erantzun bat baino gehiago eman dute. Gehienek eta, alde nabarmenarekin, “beste bideak” aipatzen dituzte (**%55ak**). Aukera honetan eskola, beste gurasoak, ... sartzen dira. Ondoren, “liburutegietako gomendioak” (**%33ak**). “Galtzagorri Elkartearen zerrendak eta web orria” erabiltzen duela **%10ak** erantzun du eta “liburu-denden nobedadeak” erabiltzen dela **%4ak**. Azkenik, “egunkarietako eranskinak” **% 3ak** baliatzen ditu.

Datu horien arabera, guraso gehienek eskolarengandik eta beste gurasoengandik jasotzen dute informazioa. Aldiz, Haur Literaturako informazio bide “espezializatuak” oso gutxi edo ezer ere ez dituzte erabiltzen.

6. LIBURUTEGIAREN ERABILPENA

6.1. Liburutegira joatea (maiztasuna)




Liburutegietara joatearen maiztasunaz galdetzerakoan, gurasoen **%52ak** “inoiz ez” dela joaten erantzun du. Joaten direnen artean, ez dago alde handirik aukeran eskaintzen diren maiztasun tarteen artean. “Astean behin” joaten direnak **% 24a** dira.

“Hamabostean behin” joaten direnak **%7a**; eta “hilean behin”, **%13a**.

Datu horien arabera, esan daiteke, 3 urteko haurren gurasoen artean liburutegira joatearen ohitura gutxi hedatua dagoela; **%24a da** bakarrik astero edo hamabostean behin joaten dena. Inoiz joaten ez diren gurasoen ehunekoa handia denez (**%52a**), irakurzaletasuna sustatzerakoan oso kontuan hartzeko datua da hau.

6.2. Mailegatutako baliabide mota



Liburutegietara joaten diren gurasoen **%48ak** ez du mailegu zerbitzua erabiltzen.

Mailegua erabiltzen dutenen artean, gehienek “ipuinak” mailegatu zituzte (**%42ak**). Ondoren, “teknologia berrien” multzoan sar daitezkeen baliabideak mailegatu zituzte: “bideoak, DVDak, joko interaktiboak” (**%25ak**). Ondoren, **%7ak** “besterik” izendapenean sartzen diren baliabideak mailegatu zituzten (komikia, musika, gurasoentzat liburuak, ...). Azkenik, ehuneko txiki batek (**%3ak** bakarrik) mailegatu zituzten du “haur poesia”.

Datu horiek ikusita, bi ondorio atera ditzakegu: teknologia berrien hazkundearekin “pantaila eta irudia” euskarritzat duten baliabideen erakargarratasuna (bideoak, DVDak, ...) gero eta handiagoa da haurren artean, maileguen ehunekoek adierazten duten bezala. Baliabide horien mailegua, ebalatuak izan diren gurasoengan, ipuinek eta “ohiko” edo tradiziozko haur literaturako baliabideen maileguaren ehunekoetara hurbiltzen ari da.

Beste alde batetik, “haur poesia” eta, orokorrean, ahozotasunari buruzko jarduerak literarioak ahalbidetzen dituzten baliabideen mailegua oso urria da, ia ez da existitzen. Ondorioz, esan daiteke egungo gurasoek ez dietela hurrei “haur poesia” irakurtzen hurrei.